

HBn bortxari uko egiteko urratsa eman dadin ahalegindu behar dugu.


Argi eta garbi esan behar da ez dela sekula negoziaketa politikorik izanen ez ETArekin eta ez bere inguru politikorekin, Euskal Nazio Askapen Mugimendurekin, Herri Batasunarekin, Amnistiaren aldeko Batzordeekin... Biolentziak hor dirauen artean demokratik marraren alde batean egongo dira eta demokratik ez direnak beste aldean, eta ondorioz isolamendu politika gogor bat burutuko dugu, oso gogorra gainera.

Baina aldi berean, ETaren edo HBren munduan biolentziatik ateratzeko mugimendu bat gertatzen den bakoitzean gure laguntza emateko prest gaudela esango dugu. Lehen esan dudanarekin kontraesan dagoela itxura emango du zenbait unetan, baina ongi aztertuz gero biak estrategia berean sartuta daudela ohartuko zara.


EGUNKARIA.— Herri Batasunakoei erantzunez Ramon Jauregik Gasteizko Legebiltzarrean erabili zuen tonu leunak aldaketaren bat gertatzen dela uste duzuela esan nahi al du?

BUESA.— Ez, ez da hori. HB Legebiltzarrera joatea zen egun hartako gertakizuna, eta ez gainera arazo politiko bat zela eta, biolentzia, borroka armatua, Estatutua, Nafarroa, Ipar Euskadi edo nik dakit zer. Eguneroko arazo batengatik Legebiltzarrera agertzea, industriren egoeraz eta geroaz eztabaidatzera, Herri Batasunaren aldetik normaltze alderako urratsa da. Ramon Jauregik ez zuen eztabaida hartan ohizko hitzaldi erraza errepikatu nahi izan, «zuen nagusiak bonbak ipintzen dituztenak dira».

HBk arazo zehatzari proposatzen zion konponbidea—Madrili kuporik ez ordaintzea—burugabekeria dela erantzun zien, eta horrek ez lukeela arazoa konponduko. Batetik, kupoaren dirutza ez delako gure industriaren egoera moldatzeko nahikoa, eta bestetik gaurko Europar horrelako marko autarkikorik pentsatu ere ezin delako.



Fernando Buesa ez du uste EAEko biztanle guztiek euskara sekula erabiliko dutenik.



OLALDE

«Ikastolen pribilegioak laster amaituko dira»

PELO ZUBIRIA / GASTEIZ

EGUNKARIA.— Zer gertatzen zaizu ikastolekin? Hona nentorrela zure aurpegia daramaten afitxa batzuk ere ikusi ditut, Gasteizko kaleetan.

FERNANDO BUESA.— Nik ez daukat ezer ikastolekin, ez dakit haiek nerekin zer edukiko duten. Ikastolen panorama behin-betiko argitu beharra daukagu. Ikastolen mundua sakonki errespetatzen dut, euskararen eta euskarazko irakaskuntza berreskuratzeko lan handia egin zutelako frankismoan eta trantsizio demokratikoaren artean. Gaur pribilegiarik justifikatzen ez duen panorama bati egin behar diote aurre. Esfortzu historiko hori kontutan hartuta, nahi badute ikastetxe publiko eta nahi badute eskola pribatu bihurtzeko ahalmena uzten diegun markoa dago diseinatuta. Erabakitzeke aske dira.

Orain, ikastolek ezin diote euskarazko irakaskuntzaren monopolioari eutsi, sistema publiko osoak eta neurri batean pribatuak hizkuntz eredu desberdinen aukerak eskaintzen dituzte eta. Bestalde, beren proiektu pedagogikoak ez dauka sistemak bere barruan ez daukan berezitasunik tratatu ekonomikoan bereziak izatea justifikatzen duenik. Azkenik, 1988an Eusko Legebiltzarrak konfluentzi lege bat onartu zuen eta dagoeneko luzeegia izan den trantsizio aro hori ahalik eta lasterren amaitu behar dela. Ezin dugu jarraitu beren buruari ikastola deitu eta pribilegioak gozatzeko dituzten eskolekin. Pribilegioak beti dira gorrotagarriak, eta administrazioak denak justiziaz tratatu behar ditu.

EGUNKARIA.— Ikastolekiko harremanetan zure aurretik Hezkuntza sailburu izan zen Oliverik beste konpromezu batzuk hartu zituela dirudi.

BUESA.— Bueno, berezi behar dira

Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiak eta sail bakoitzak daraman politika. Jaurlaritzak bere konpromezuak kontseiluan hartzen ditu eta ezin ditu beregain hartu sailburu baten ekintza guztiak. Ez dut Oliveriren jokabidea epaituko, baina Jaurlaritzaren konpromezuak izan gabe errore politikotzat jotzen ditugunak zuzentzeraz goaz. Gure politikak ez du hipotekarik, eta ez gure helburuak eta ez gure politika izango da EAK egin zuenaren berdina.

Ikastolak asko dira eta ez dira zaku berean sartu behar. Batzuek transferituetara pasa dira, beste batzuek pribatasunaren apostua egin dute eta azkenik trantsizio epe horretan daudenak daude, Ikastolen Elkartek biltzen dituenak. Horiek daude beren egitura ekonomikoa birmoldatze garaian. Ikastolen Elkartearikiko konbenioaren helburua eskola publikoarekiko konfluentzia bazen, prozesu horretan dagoen ikastolak ezin du ikastetxe publiko batek baino koste handiagoa eduki. Eta hori esan diegu, ez gaudela ikastetxe publiko bati finantzaketa handiagoa emateko prest. Ikastolako langile batek

ez dauka eskola publiko bateko beste batek baino gehiago zertan irabazirik. Muga horiek ezarri ditugu Federazioarekiko harremanetan.

EGUNKARIA.— Trantsizioa aipatzen duzu behin eta berriro. Eperen bat badarabilzu buruan.

BUESA.— Badago egoera hau 'sine die' luza daitekeen irudipena. Argi eta garbi diot, edozein ikastola bihar bertan bihurtu daiteke zentru publiko. Era berean, egoera honek bukaera ere izanen du eta hau gertatuko da Euskal Eskola Publikoaren legea Legebiltzarrak erabakitzen duenean. Ez dakit datorren ikasturterako posible izanen den edo hurrengorako, baina gisa guztiz ere ez pare bat urte baino urrutirago. Tarte horretan, nahi dutenek publiko eta nahi dutenek pribatu bilakatu beharko dute, ondorio guztiekin.

EGUNKARIA.— Irakaskuntzan aipatu duzun zuzenketa, berreuskalduntze alorrean noraino zaude eramateko prest?


BUESA.— Hasteko, «berreuskalduntzea» baino «euskalduntzea» aipatuko nuke, Euskal Herriko leku askotan orain dela ehunka urte ez bait

da euskararik egiten. Euskara ikasi eta erabiltzeko posibilitatea mundu guztiari emateaz mintzatu behar da. Honetan, erritmoak gehiegi behartu direla uste dut, eta bigarrenik baliabideak ez direla egoki erabili. Adibidez, irakasleek IRALeren bidez euskara ikas dezakete baina ikastaro guztiak burutu ondoren ezin dute euskaraz irakatsi, beste proba bat gauditu behar dute. Duela gutxi heldu zitzaidan EGA titulua eduki arren administrazio lanpostu baterako hizkuntz profila lortu ezin zuen baten kexua. Eta hola beste hainbat.

Euskararen inguruko elementu sail bat disfuncionalak dira, balio-kidetasunak, tituluak eta abar argitu gabe daudelako. Jendeak euskararen alde egiten duen esfortzuarri erabilgarritasuna eman behar zaio. Baina gobernu bat ezin da jendeen kontzientziaren gainetik ezarri, gobernu ez dago kontzientzien gainetik agintzeko, gizaki bakoitzak bere hizkuntz eskubideak erabiltzeko marko bat bermatzeko baino, lekuan lekuko berezitasun linguistikoei egokitutako politika batean. Euskararen erabilera herritarrek burutuko dute, nahi badute. Hizkuntzaren normalizatzarako okerrenera herritarren arbuioa eragitea da eta hori da zenbait erabakirekin lortu dena.

EGUNKARIA.— Guzti horiek ikusteko adina denboraz biziko ote da euskara?

BUESA.— Orain arte bizi izan bada, hemendik aurrera baldintza hobetan iraungo du. Lehen ahoz bakarrik ikasten zen hizkuntza orain eskolatan ikasten da, maila askotan erabiltzen da. Galdetzen badidazu: posible izango ote da Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban bizi garen 2.200.000 euskal herritarrok eguneroko bizitzan normaltasunez euskara erabiltzea, guztiok? Ez dut uste.



Fernando Buesa.

OLALDE

□ hamarrekoa

Alberto Ansola

□ Arabako diputatuorde nagusi on bat izan zen nerekin.

Ramon Jauregi

□ Euskal sozialismoaren giltzarria. Askok ikasi dut beregandik.

Mari Karmen Garmendia

□ Hizkuntz arazoek obsesionatuegia daukate.

Jose Antonio Aguiriano

□ Sozialista arabar betikoa.

Joseba Arregi

□ Gizon argia da, kultur sentsibilitate handikoa, eta kultur arazoez berarekin gizalegez mintza daiteke.

Juan Maria Bandres

□ Euskadiko Ezkerraz etsita dagoela uste dut.

Tasio Erkizia

□ Abertzale munduko ahots sektario bat, besterik gabe.

Gabriel Urralburu

□ Usadioa hautsiz, Nafarroan sozialismoa gobernu indar bihurtu izanaren meritua dauka.

Jaime Mayor Oreja

□ Politikari on bat, euskal eskuina irudi berri batean bildu dezakeena.

Pablo Mosquera edo Anton Saenz de Santa Maria

□ Bi pertsonaia kontraesankor UA bezalako alderdi baten ikur.

PUBLIZKUNTZA 91 Donostia

PUBLIZITATEA ETA HIZKUNTZA EZ NORMALIZATUEI BURUZKO I. FERIA ETA KONGRESUA

Feriako sarrera dohan. Erregalok bisitari guztientzat.

FERIA:

Udaletxe azpiko aretoa. Abenduak 18-22.
Astegunez: 5-9. Asteburuan: 11-2 eta 5-9.

KONGRESUA:

Magisteritza Fakultatea. Abenduak 19-21.